

## PASAI ANTOKO ASTE MUSIKALA 2019

Larunbata, martxoak 23, 20'00etan: Araoz Abesbatza (Elizan)  
Igandea, martxoak 24, 19'00etan: Oñatiko Ganbara Abesbatza (Elizan)

Ostirala, martxoak 29, 20'00etan: Cum Jubilo Abesbatza eta Illunbe Abesbatza (Elizan)  
Larunbata, martxoak 30, 20'00etan: Zaria Abesbatza (Elizan)  
Igandea, martxoak 31, 13'00etan: Illunbe Musika Banda (Alamedan)

## PASAI ANTOKO ASTE MUSIKALA SEMANA MUSICAL DE PASAI ANTZO

# 2019

### EASO EMAKUMEEN ABESBATZA



### ANTOLATZAILEA:

Sociedad Musical Pasaitarra – Musika Banda Pasaia



### LAGUNTZAILERAK:

Pasaia Antxoko San Fermín Eliza  
Pasaia Udala – Kultura Saila  
Pasaia Musikal



DÍA / EGUNA: 2019ko MARTXOAK 23  
HORA /ORDUA: 20'00etan  
LUGAR / TOKIA: PASAI ANTOKO ELIZAN

## EAÑO EMAKUMEEN ABESBATZA

EAÑO Abesbatzaren seigarren taldea, 2006. urtean sortu zen eta 40 emakumek osatzen dute, gehienek 5 urte baino gehiagoko musika prestakuntza prozesua osatu dutelarik Araoz Gazte abesbatzako kide gisa.

Sortu zenetik, "Bahiketa harenean" (Mozart), "lolanta" (Tchaikovsky), "Xirula majikoa" (Mozart), "La traviata" (Verdi), "Tosca" (Puccini), "Don Giovanni" eta "Figaroren ezteiak" (Mozart) operetan parte hartu du Donostiako Musika Hamabostaldiko 67, 69, 73, 74, 76, 77 eta 78 edizioetan, eta "Eugene Onegin" (Tchaikovsky) Toulouse eta Parisen, baita "La tabernera del puerto" (Sorozabal), "Las bribonas" (Calleja) eta "La revoltosa" (Chapí) zarzueletan eta hainbat programa sinfoniko-koraletan; horrek guztiak € uskadiko Orkestra Sinfonikoarekin, Toulouseko Kapitolioko Orquesta Nacionalarekin, Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin eta Balearretako Orkestrarekin lan egitea ahalbidetu dio.

Horrez gain, abesbatzak formatu murrizakoa eskatzen duten kamera-musika eta folklorea lantzen ditu ere, hainbat musika ziklotan parte hartuz

### Ana Belén García

Andoainen jaio zen eta hantxe hasi zituen bere musika ikasketak ere. Donostiako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan jarraitu zuen bere piano-prestakuntza eta bertan bukatu zituen pianoko eta klabizenbaloko goi mailako ikasketak nahiz organoko erdi mailako ikasketak.

Donostiako Goi Mailako Musika Ikastegian, Musikenen, bukatu zituen organo ikasketak, Esteban Landart-ekin eta bere prestakuntza Loïc Mallié-n moduko hainbat irakaslerekin osatu zuen; azken horren eskutik, esaterako, inprobisazio ikasketak jaso zituen. Hainbat maisuren eskutik hartu ditu gomendioak, hala nola, Brett Leighton, Michel Bouvard, Joris Verdin, Louis Robilliard, Montserrat Torrent, Jacques van Oortmerssen, Daniel Roth, Wolfgang Zerer, Peter van Dijk...

Bakarleri eta laguntzaile gisa hainbat jaialdi internazionaletan hartu du parte (España, Belgica, Francia Rusia eta Japon), hasi musika barrokoetik eta musika kontemporanea arteko errepertorioa interpretatuz. Gaur eguneko musikarekin konpromisoa hartuta, jaialdi desberdinetan piezak estreinatu ditu: Donostiako Hamabostaldian, Leonen, Zagreb-en eta orain dela gutxi; Libanon.

Gaur egun Urrietako Lourdes Iriondo musika eskolaren zuzendaria, organo eta piano irakaslea izateaz gain Donostiako EAÑO Koroaren errepertorista eta Donostiako Santa Maria del Coro Basilikako (Cavaillé-Coll 1863) organista titularra da.

## EGITARRAUA/PROGRAMA

|  |  |
|--|--|
| F. Schubert (1797-1828)                              | Das Leben. D 269<br><br>Gretchen am Spinnrade Op. 2, D 118. ****<br>Frühlingsglaube, Op. 20, n. 2- F.*                                   |
| F. Mendelssohn (1809-1847)                           | Abendlied  |
| R. Schumann (1810-1856)                              | Dichterliebe. Op. 48.<br>I. Im wunder schönen Monat Mai. ***<br>IV. Wenn ich in deine Augen seh'.*****<br>V. Ich will meine Seele. ***** |
|  | Nänie. Op 114, 1.<br>Triolett. Op 114, 2.<br>Spruch. Op 114, 3.  |
| J. Brahms (1833-1897)                                | Meine Lieder. Op 106, 4 **<br>Feinsliebchen, du sollst. WoO.33/12<br>Verstohlen geht der Mond auf<br><br>Die Meere. Op. 20/3.            |
| F. Schubert (1797-1828) / Arr: J. Brahms (1833-1897) | Ellen's second song Op.52, 2   |
| G. Mahler (1860-1911)                                | Starke Einbildungskraft<br>Scheiden und Meiden   |

María Martín\*  
Lorea López \*\*  
Ane Izaguirre \*\*\*  
María Jaunarena\*\*\*\*  
Luken Munguira\*\*\*\*\*

Pianoa: Ana Belen García

**Zuzendaria: Gorka Miranda**